

## «GU, HERRIA»

### *Biltzeko askatasunari buruzko gogoetak*

Elkartu eta politika-aldaketa bat, edota gobernu baten dimisioa eskatzen duten pertsona-taldeen adibide asko dago. (...) Zein dira, beraz, kalean elkartu eta —batzuetan hitzaren eta ekintzaren bidez, baina gehienetan gorputz zibil entzungarri, ukigarri, arriskatu, setati eta elkarren mendeko gisa— beren iritzia adierazten duten «gu» hauek? Sarritan pentsatu ohi den arren asanblada horietan adierazpen-ekintza bat gertatzen dela, zeinaren bidez «guk, herria» herriaren subiranotasuna aldarrikatzen duela, agian zuzenagoa litzateke esatea asanblada horrek bere burua adierazten duela, hori ere herriaren subiranotasuna aldarrikatzeko modu bat baita berez. Hizkuntzak adierazten duen «gu»-a gorputzen elkarretaratzean, eta haien mugimendu, keinu eta elkarrekin jarduteko moduan gauzatuta dago jada, Hannah Arendten hitzak gogora ekarriz.

Jakina, inoiz ez da gertatzen «herri» hitzak biltzen dituen guztiak bertan egotea herria direla aldarrikatzeko, «gu, herria» esapideak beti berez kanpoalde bat duen arren, hain zuzen ere, «gu» hitzak inoiz ezin duela «herria» osorik irudikatu, ahalik eta zabalena izaten ahaleginduta ere. «Herria direla» aldarrikatuz bilduta dauden «gu»-ek ez dute herria ordezkatzeko: legezkotasun-oinarri bat ematen diete hauteskunde bidez herria ordezkatzeko dutenei. «Gu» hori direnak beren buruak ordezkatu baino zerbait gehiago egiten dute: herri bihurtu dira, eta beren burua herri bihurtzeko ekintza hori ordezkapen-modu orotik bereizten da. Ordezkapen- moduen oinarrian, beraz, bada elementu bat, ordezkatzailerik ez eta ia tautologikoa dena, eta herri-subiranotasuna herri bat buru- izendapenaren bidez egiteko modu bat da. Buru-izendatze hori, buru-taxuketa hori dela eta, osatu den taldeak «herria» dela dio. Herri-subiranotasuna, beraz, bere burua ekoitzi eta hausnartu duen molde bat da, legezkotasuna ematen duen ordezkatzeko-erregimenaz bestelakoa. Herri-subiranotasuna erregimen partikular orotik aske egonda baizik ez da posible legeztatze hori.

Biltzeko askatasunaren eskubidea, batzuetan elkartzeko askatasuna ere esaten zaiona, argi eta garbi finkatzen du nazioarteko legeak (1). Lanaren Nazioarteko Erakundeak argi eta garbi dio biltzeko (edo elkartzeko) askatasuna negoziazio kolektiboaren eskubideekin lotuta dagoela. Giza-eskubideei buruzko testu batzuetan, biltzeko askatasuna gobernu orok babestu behar duen eta poliziaren nahiz justiziaren interferentzia orotik aske egon behar duen funtsezko askatasun gisa deskribatzen da (babes hori ez da betetzen bildutako taldeak Estatuaren babesteko ahalmenaren aurka agertzen denean, edota Estatuak biltzeko eskubidea urratu eta herritarrei askatasunez elkartzea eragozten dienean). Baina biltzeko askatasunaren eskubidea nazioko edo nazioarteko legeek babestutako eskubide zehatz bat baino gehiago da, giza eskubideei eragiten dietenak barne. Esan genezake biltzeko askatasuna politikaren beraren ezaugarri bat dela.

Zein zentzutan da ariketa performatibo bat?

Baldintza hauetan, zer pentsa daiteke biltzeko askatasunaren eta herri-subiranotasunaren arteko harremanaz? Postu ofizialeko hautatu batzuk gehiago batek hautatu dituelako herri- subiranotasuna (edota, zehazkiago esanda, «herriaren borondatea») ordeztzen dutela uste bada, hortik ezin da inola ere ondorioztatu hauteskunde-prozesuak subiranotasuna erabat ordeztzen duenik, eta ezta

hauteskunde bidez herriaren subiranotasuna ordezkari hautatuetara igarotzen denik ere. Herriak hautatu dituen haiez «beste» izaten jarraitzen du, eta beti du hauteskunde baldintzak eta emaitzak kritikatzeko ahalmena, eta baita hautatu dituenen ekintzak ere. Bozketa baten bidez herriaren subiranotasuna hautatuen eskutara igaro daiteke, hori garbi dago, baina igarotze hori inoiz ez da erabatekoa izango. Bada herriaren subiranotasunean besterendu ezin den zerbait: herriaren eskumenean dago hala erregimenak hautatzea, nola eraitea. Herri-subiranotasunak boterearen molde parlamentarioei legezkotasuna ematen badie, hark dauka legezkotasun hori kentzeko eskumena ere. Eta taxuera parlamentario horiek herriaren subiranotasuna behar badute, haren beldur ere badira, subiranotasun horrek finkatzen duen edozein molde parlamentarioaren aurka eta harago doan parte bat baitu bere baitan. Arauen arabera hautatutako erregimen bat ere blokeatu edo eraits dezake «herriaren izenean» mintzo den jende- multzo batek, demokrazia erabiliz legeztatzeko eskumena duen «gu» hori mamitzen duenak. Energia «anarkista» esan dakioke, edota iraultza-printzipio iraunkorra, ordena demokratikoaren barruan. Hala kasu batean nola bestean, elkartutako gorputzen bilera batean oinarritzen da, eta «herri» gisa jarduteagatik eratu den elkarte batean

Badirudi, bada, «gu, herria» esatea lehenik eta, batez ere, buru-izendapenezko eta buru-taxuketazko ekintza bat dela. Norbaitek «gu» dio, eta aldi berean, talde batek ere gauza bera dio, guztiak elkarrekin eta, horrekin, «herria» izan nahi dute. Hortaz, hizketa-egintza gisa hartuta, «gu, herria», osatzen duen gizarte-pluraltasuna azaleratu nahi duen enuntziazioa da. Ez du deskribatzen, existiarazten saiatzen da. Beraz, «gu, herria» esapidean betetzen den buru-eratzeko linguistiko bat da, gutxi- asko magiaren baitan dagoen ekintza bat, edota, gutxienez ere, performatzearen izaera magikoan sinestera bultzatzen gaituena (2). «Gu, herria» adierazpen luzeago baten hasiera da, noski, eskariak eta nahiak adierazten dituen, geroagoko keinuak eta eskabide politikoak iragartzen dituen. Baieztapen zehatzen multzo zabal bati bidea irekitzen dien atariko bat da, eskari politiko garrantzitsu baterako prestatzen duen esaldi-hasiera bat baina, hala ere, hasierako hitz bakan hauetan geratzeko gonbidapena egiten zaigu, horrekin eskari bat planteatu izan bagenu bezala, edota gauzatzen arituko balitz bezala.

Agian ezinezkoa izango da «gu, herria» elkarrekin esan ahal izango luketen guztiak hitz horiek aho batez ahoskatzea. Eta inoiz talde oso batek hitz horiek aho batez oihukatzea gertatzen bada, *Occupy* mugimenduan gertatu zen bezala, une labur eta behin-behinekoa izaten da, zeinetan pertsona askok aldi berean hitz egin duten, eta kontzertu-ekintza honek, elkarrekin ahoskatutako hizketa-egitate honek nahi gabeko hots-emaitza bat sortzen du (...).

**JUDITH BUTLER.** *La Maleta* (2013) aldizkariaren lehen alean gaztelaniaz argitaratuako artikulu-zatien itzulpena. *Qu'est-ce qu'un peuple?* (Paris, La Fabrique, 2013) liburuan agertu zen lehendabizi.

(1) Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1948, 20-23 atalak.  
(2) Ikus Judith Butler, «Performativity's social magic» in Richard Schusterman (zuz.).

Bourdieu: *A Critical Reader*, Londres, Basil Blackwell, 1999.